

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

azago	«Denboran atzera ari da, azago , neurtzen ari balitz bezala aurreko eta ondorengoaren arteko marra nola sortu zitzaion...»
estreinako	«Nik esango dizut zer den: estreinako presioa bularrean, eztarria ihartuta eta bihotza taupaka sentitzea...»
atoan	«Maiteminduak nahi du dena eta atoan , baita ezinezkoa ere.»
zigarrokin	«Begirada galdurik (...) hankak gurutzaturik, koadro honetan zigarrokinaren keak eta jaustear dagoen erraustak bakarrik dute mugimendua.»
txirikordatua	«Maitasuna txirikordatua da, uri-beltza, aurreikustezina, korapiloz betea.»
azare	«Azarea noraino da ekidinezina? Eta noraino da azare ?»
bailuen	«Bigarren enkontru hartan bertan, ezertxo ere galdetu ez bailuen , galderak egiteari ekin zion naturaltasun osoz.»
ekidinezin	«Azarea noraino da ekidinezina ? Eta noraino da azare?»
orbain	«Hala ere, harreman hura bertan behera geratuko zatekeen Mikelek aurrera jo izan ez balu, txikiaren orbaina berriz ikusteko interesik adierazi ez balu.»
zatekeen	«Hala ere, harreman hura bertan behera geratuko zatekeen Mikelek aurrera jo izan ez balu, txikiaren orbaina berriz ikusteko interesik adierazi ez balu.»
aseptiko	«Mikel ez zen aukera bat, zen harreman aseptiko bat, hartu eta uztekoa.»
bailitzaion	«Zerbait gertatu zelako kontzientzia laster hartu zuen, izan ere, elkar ikusteari hiru egunez utzi eta beso bat falta bailitzaion sentitu zuen egunean.»
apika	«Beste egun batzuetan Jon gogor mintzatzen zitzaion, pazientzia galdurik edo egoera horretatik atera nahian, apika .»
kikilduta	«Beraren baitan murgiltzen zen, eta luze egon zitekeen kikilduta sofaren ertzean.»
lagun hurko	«Familiak eta lagun hurkoek Ane ez onartzeko presioa egiten ziotela ezkutuan, eta agian arrazoi zutela...»
ustekabean	«Isilik baita senarra ere, ustekabean harrapatuta.»
sumindura	« Sumindura bai, Baina berau baino handiago zela jakin-mina.»
ziotson	«Barnean gorrotorik ez zuela ziotson .»
antsiatsu	«Mikelen etxera heldu ziren eta atea itxi aurretik bata bestearen besoetan zeuden, nor bere maitearen larruaren bila, antsiatsu .»
harrezkero	«Kanpotik inork ezertxo ere nabaritu ezin zuen arren, ezer ez zuen berdin harrezkero .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

herdoildu	«Gezur baten ganean zuen eraikita harremana, eta gezurrak bizi laburrekoak izaten dira. Herdoilduz doaz egunerokotasunaz.»
asaskatu	«Hiru hilabeteren buruan munduan zuen lagun onenarengana joan zen, borborka zuen barnea asaskatzera , bera baitzen Mikelen berri zuen bakarra.»
borborka	«Hiru hilabeteren buruan munduan zuen lagun onenarengana joan zen, borborka zuen barnea asaskatzera, bera baitzen Mikelen berri zuen bakarra.»
errieta egin	«...eta Karmelek artean –halakoa zen bera–, ez zion errietarik egin .»
ez-sasoian	«...orain ikasi duzu zer den maitasuna: dohaina da, dena polita eta larrosa, baina ezbeharrak ere izan daiteke, desgrazia bat. Ez-sasoian ikasi duzu baina.»
enoratu	«—Hemen nauzu, Karmele, mugak enoratu nahi izan eta berriz etxean, baina hesia dagoen nik neuk jakin behar nuen.»
ekidin	«Karmele sartu denean Esteban mahaitik altxatu, sofan jesartzeko eskatu dio eta bera ondoan jarri da, lagun gisa, jarrera profesionala ekidin nahian edo.»
jakinaren ganean	«Neu bakarrik nengoen jakinaren ganean ...»
ahalik eta ...-en	«—Esadazu nola kontatu zizun hura, ahalik eta zehatzen , garrantzitsua da eta.»
indigente	«Begi-tara begiratzen dion bitartean esan dio amodio oro gabezia eta bakardadea batzen direnean, gizakia indigentea dela.»
branka eman	«Une batean (...) zeharo suntsiturik sentitu nintzen, batez ere branka eman behar izan genionean zirt ala zart egin beharreko egoerari.»
zirt edo zart	«Une batean (...) zeharo suntsiturik sentitu nintzen, batez ere branka eman behar izan genionean zirt edo zart egin beharreko egoerari.»
muzin	«Mikel muzin agertzen zen, egoeraz haserre.»
sumatu	«Ohearen ganean etzanda, beraren kontra zapalduz sentitzen ziren; horren handia zen aldean sumatzen zuten pisua.»
ahiturik	« Ahiturik nengoen deusetan pentsatzearen pentsatzeaz.»
araketa	«Konponbidea ikusten dio gaixoari, baina hasieran baino ez daude, lehen fasean, arazoa sortu duen hurbileko zergatien araketan .»
deusetan	«Ahiturik nengoen deusetan pentsatzearen pentsatzeaz.»
emankor	«Ordubeteko saioak emankorrak suertatzen ari dira, Anek luze eta zabal ekiten diolako kontaktari...»
hisiaka	«Setati, hisiaka erabaki nuen erabakirik ez hartzea, noraezean aritzea, jarraitzea.»
gogoramen	«...esperientzia traumatikoa gehiago bilatu behar da gogoramenetan egiazko gertakizunetan baino.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

jaramon egin	«Anek bizi duen analisiaren fase honetan, aldiz, Estebanek esan liezaiokeenari ez dio jaramon handirik egiten .»
atontdu	«Anek nahikoa lan izan zuen lehen asteetan etxea atontzen .»
fiktizio	«Isilunean batailaren aurreko bakealdi fiktizioak izaten ziren.»
kulun-kalan	«...eta kontatu dio zelako tarteak izaten zituzten etxe berotuen kanpoaldeko espaloian, kulun-kalan , elkarrizketak ez gabe eta, hala ere, elkarrizketa luzeetan.»
txoriburu	«Egia da gaztetan txoriburu galanta izan zela, eta ardura guztiak uxatu egiten zituela.»
uxatu	«Egia da gaztetan txoriburu galanta izan zela, eta ardura guztiak uxatu egiten zituela.»
osterantzean	«Hau da, gizon batek bene-benetan maite duenean, emakumeek bezala maitatzen duela, eta osterantzean ez duela maite.»
artean	« Artean ez nekien, baina orain badakit maitasun hartan ez zegoela pasiorik.»
aiduru	«Estebanek ez zuen programaturik, esaterako, Anerekiko saioaldia noiz helduko zen aiduru egongo zenik, Anegatik baino, hutsik egin gabe...»
zina egin	«Areago, izan ere, Kar mele guztiak baztertzeko zina egin dio Mariani berriki.»
herabeti	«...gorputz baten liraina, eskuaren epeltasuna, irribarre baten keinu herabetia ..., zerbaitek osatzen du une batean norberaren puzzlean bete gabe dagoen hutsunea...»
sastada	«...beste pertsonaren gorputzaren gainetik igarotzen diren huskeriak, keinuak, koloreak; baina sastadarako joera ez da zirkunstantziala, ez da aitzakia.»
goibeldu	«...ezbeharra egunero ikusi beharra eta berau tratatzeko baliabide-falta ikaragarria baitzegoen, edonor goibeltzeko modukoa...»
pot eginda	«...eta egun amaigabe baten ostean, Mikel pot eginda heltzen zen etxera, fisikoki eta moralki behea jota...»
saihestu	«Entzuten dion bitartean, Estebanek ezin du saihestu galdera bera bere buruari zuzentzea: berak zer aukeratuko ote zuen?»
bekaiztu	« Bekaiztu egiten zen inork aipatzen zionean Maria gizon batekin hizketan ikusi zuela kalean...»
jelosiak jota	«Lankide batek Mariani gauza polita esatea nahikoa izaten zen bera jelosiak jota egoteko.»
zarpail	«...berarekin bortizkeriaz jokatzeari, guztien aurrean zoro agertzeagatik eta bere bikotekidearekin zarpaila izateagatik.»
ei	«Txakurrek eta beste animalia askok ere gauza bera egiten ei dute: beren eremua usainen bidez mugatu eta finkatzen dute.»
gar	«Baina buruaz egiten zituen arrazonamendu hauek ez ziren aski bere bihotzak isurtzen zuen garra apaltzeko...»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

nerabe	«Familia-planifikaziorako monitorea behar zituztela, ama nerabeei laguntza emateko eta nahi gabeko haurdunaldiak ekiditeko informazioa zabaldu behar zutela...»
kargutu	«Bere zeregin berrien arduraz oraindik kargutu gabe zegoela, El Salvador-en haize-erauntsi itzela gertatu zen...»
ahalke	«...eta beste aldetik, bere zintzotasuna jasateko ahalke sentitzen nintzen erabat: bere bihotz-zabaltasunaren aurrean ezin nuen ezer egin.»
astebete barik	« Astebete barik , beste hamabi egun gehiago pasatu ziren azkenean, harik eta nikaraguar taldea berriz Managuara heldu zen arte.»
sufrikario	«Mugagabeko tristeziak jotzen ninduen, hondorik gabeko tristeziak, zeren nire sufrikarioa bikoitza baitzen...»
halakoak	«Min gehien ematen dien gizon-mota aukeratzan duten emakumeak dira, fatalitateak jotako panpina grekoak halakoak ; gizon-mota berezi batek erakarrira sentitzen dira...»
lagatu	«Mikelek ez luke inoiz emakume bat joko, lagako edo mespretxatuko.»
mespretxatu	«Mikelek ez luke inoiz emakume bat joko, lagako edo mespretxatuko .»
errieta	«...eta Mikel ere proiektu gehiagotan inplika zitekeen, etxean errietarik entzun gabe.»
artez	«Esteban artez sartu da gaian.»
gorpuzkera	«...baina biek zuten altuera eta gorpuzkera bera, meharra, eta biak ia berdin janzten ziren ia beti...»
mehar	«...baina biek zuten altuera eta gorpuzkera bera, meharra , eta biak ia berdin janzten ziren ia beti...»
kadentzia	«...areago, ibilkerari ere beste kadentzia bat eman zion, arinagoa, zuzenagoa, albo-kulunkarik gabea.»
huskeria	«Istorio horretaz konta diezaiokeen guztia jakin nahi du, xehetasun guztiak azken huskeriaraino .»
xehetasun	«Istorio horretaz konta diezaiokeen guztia jakin nahi du, xehetasun guztiak azken huskeriaraino.»
aldian behin	«...galdetzen dio aldian behin Marianek, noizbait izan zen suaren garra nola edo hala iraurarazi nahian, iraungi ez dadin.»
iraungi	«...galdetzen dio aldian behin Marianek, noizbait izan zen suaren garra nola edo hala iraurarazi nahian, iraungi ez dadin.»
boladaka	« Boladaka baino sarriago mintzatuko balira, beren arteko harremanaren diagnosiari noizbehinka ekingo baliote...»
birritan	«...eta desiraren harrian birritan baino gehiagotan estrapozu egitea.»
estrapozu egin	«...eta desiraren harrian birritan baino gehiagotan estrapozu egitea .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

amultsuki	«Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki , izarak blai utzi arte.»
blai	«Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte.»
egonean egon	« Egonean egon , zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte.»
izara	«Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte.»
larrutan egin	«Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin , zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte.»
uhartedi	«Solentiname uhartedia bitxia da. Ez dauka ez elektrizitaterik ez ur korronterik.»
anker	«Etsipena sentitzen zuen, ondoeza, bere bizitza zakarrontzira botatzen ari zelako sentsazio ankerra .»
beta	«Aneri ez zion ezer galdetu, ezta ezer erantzuteko betarik eman ere.»
onbideratu	«Nik maite nuen, berak maite ninduen, ez al genuen gure onbideratzerik ?»
iharturik	«Harreman hura iharturik bazegoen berriz pizterik ez zegoela uste izango duzu agian...»
erabakimen	« Erabakimena da, eta ez azarea, harreman afektiboaren amaierarako giltza.»
harri eta lur	« Harri eta lur geratu da Ane hasieran, Estebani begira. Gero zorura begiratu du.»
oinaze	«Bila dabil gogoan, iragana orainera ekarri nahian, baina mingarria da aurkitu duena, eta oroipeak baztertu egin ditu, oinazea saihestearren.»
faliko	«Zigarroa magikoa izan daiteke une batzuetan, totem sakratua, sinbolo falikoa , indar-biltzailea, jolaskide katartikoa.»
katartiko	«Zigarroa magikoa izan daiteke une batzuetan, totem sakratua, sinbolo falikoa, indar-biltzailea, jolaskide katartikoa .»
totem	«Zigarroa magikoa izan daiteke une batzuetan, totem sakratua, sinbolo falikoa, indar-biltzailea, jolaskide katartikoa.»
setati	«Marianen oroitzapena burua astinduz uxatu, mandeuli setatia uxatzen den eran.»
erremín	«...barnean duena ukatzeak ez du bururik, sekretu horrek erremína ematen diolako, zabalik dagoen zaurian ozpina isurtzeak erremintzen duen bezala.»
biharamun	«Berriz sentitu desiraren garra gauean, eta zalantzaren arra biharamun goizean...»
ahalean	«Hori da Estebanen lana, nork bere buruan eginik duen irudian arrakalak bilatzea eta, ahalean , arrakalak ixtea.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

arrakala	«Hori da Estebanen lana, nork bere buruan eginik duen irudian arrakalak bilatzea eta, ahalean, arrakalak ixtea.»
berrosatu	«...senar eta alabak nolatan utzi zituen, hausturik duen subjektibitatea zelan berrosatu behar duen.»
ezen	«Esango zien ezen arrazionalki erabaki ez bazuen ere, Anek arrazoiak zituela...»
paratu	«Une batez pentsati paratu da Ane, zalantzan balego bezala...»
pentsati	«Une batez pentsati paratu da Ane, zalantzan balego bezala...»
alde	«—Ez, jakina. Baina aldea , batez ere, norberaren buruan dago, nork bere buruan zer pelikula muntatzen duen, hortxe dago koska.»
koska	«—Ez, jakina. Baina aldea, batez ere, norberaren buruan dago, nork bere buruan zer pelikula muntatzen duen, hortxe dago koska .»
muntatu	«—Ez, jakina. Baina aldea, batez ere, norberaren buruan dago, nork bere buruan zer pelikula muntatzen duen, hortxe dago koska.»
opatu	«Inori ez diot opa horrelakorik.»
planta egin	«...kontsultara joan eta bide batez doalako planta egitea , handik igaro izan balitz bezala, ustekabean.»
rendez-vous	«Berak deitzea ere ez du egoki ikusten, espektatibak sortu, rendez-vous baterako ordua jarri, ordura arte aiduru egon...»
kikara	«...bota dio ezustean Karmelek kikara kafea hutsik laga duenean mahiaren gainean.»
baliteke	«— Baliteke . Ez nizuke ezetzik esango.»
dio	«Berak beti dio gauza bera, galdetzen diodanean senarrarekin maitemindurik dagoen ala ez...»
duintasun	«Oraingo lantoki berrian, ordea, duintasunez bizitzeko bezainbesteko soldata jasotzen zuen hilero...»
sentibera	«Roberto sentibera zen, beroa, pasioz betea. Gaztea zen oso.»
ahala	«Haserre dago Ane, minduta, deseroso. Estebani kontatu ahala , burura datorkio berriz ere hilabete haietan nolako egoera bizi izan zuen...»
oste	«—Zer istorio eta zer istorio- oste ? Hori ez da istorioa, errealitatea baizik.»
malenkonía	«Liburuek baino hobeto, Ane ari zaio definitzen, alaba-minez, malenkonía zer den: ausentzia baten presentzia etengabea.»
kerra	«...baina zapore mingotsa lagatzen du aho-sabaian, almendra mingotsen zapore kerra .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

egunen gurpilean	«...maitasun guztiak elkarren hartzen dute. Egunen gurpilean ez dago magiarik.»
sarraldi	«...eta gero, bestearen territoriora sarraldiak egitea, bisitan baina, norberaren koartelera bueltatzeko beti ere.»
arbuio	«...ezagutzen ez dugunak ez du arbuiorik eragiten, baizik eta iraganean bizi izandako zerbait ekartzea...»
sumatu	«...abiatu da Esteban, gaiari heltzeko unea dela sumatuz .»
uzkur	«Emakume uzkurra ematen zuen, bere baitan bildua, bizitzeko gogoia galdu duten horietarikoa...»
zalantzaren har	«...haren oroipenak zalantzaren harra barneratuko baitu harreman berri orotan, itzal itsaskorraren gisa.»
etsiezin	«Karmelerekin oheratzeko gogo etsiezina sentitzen du Estebanek, nekez kontrola dezakeen gogoia...»
inkisitorial	«Argi utzi dio berak ez duela asmo inkisitorialik . Anek ez lukeela ideia okerrik atera behar.»
begitazio	«Nire begitazioa izango da, ez nuke ezetzik esango, baina esan zuenean denak hil, bizi eta jarraitu behar duela, nitaz ari zela sumatu nuen.»
afera	«—Zer esaten zizun Mikelek Amaiaren aferez ? —hasi da Esteban, gaiari zeharka oratu nahian.»
oratu	«—Zer esaten zizun Mikelek Amaiaren aferez? —hasi da Esteban, gaiari zeharka oratu nahian.»
mengel	«Desira ahula zuela, itxaroten baino ez dakien desira mengela ; eta itxarotea etsitzea dela azalduko zion azkenik.»
gailendu	«Amaia sarritan gailentzen zen erabakietan, egia da...»
eragozpen	«Anek ez zuen ez baietzik ezta ezetzik ere esan, baina ez zuen eragozpenik jarri...»
seta	«...geroztik ez zitzaion gaizki iruditu Amaiak lagun-talde harekin ibiltzeko azaltzen zuen seta .»
matraka eman	«...ez zuela behar bere alboan inor, are eta gutxiago matraka emango zion ahizparik.»
gabetsi	«Hartan esaten zidan gabetsi egiten ninduela eta berarekin bueltatzeko, mesedez...»
betiereko	«...eta magia pasatutakoan konturatzen gara betiereko maitasun hura segundo galdua izan dela eternitatean, izar baten distira espazioaren eskergan.»
distira	«...eta magia pasatutakoan konturatzen gara betiereko maitasun hura segundo galdua izan dela eternitatean, izar baten distira espazioaren eskergan.»
eskerga	«...eta magia pasatutakoan konturatzen gara betiereko maitasun hura segundo galdua izan dela eternitatean, izar baten distira espazioaren eskergan .»